

225/2022 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearena, onartuen/baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen dituen, Barrualde-Galdakaoko ESIko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua –burua eta lepoa, muskuloeskeletikoa eta kardiotorazikoa arlo klinikokoa; Barrualde-Galdakaoko ESIko arreta espezializatuarekin loturaduna–hautatzeko deialdian.

#### AURREKARIAK

184/2021 Ebazpena, otsailaren 15ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdia egiten den Barrualde-Galdakaoko ESIan (EHAA, 238. zk., 2021eko azaroaren 30ekoa, eta BOE, 244. zk., 2021eko abenduaren 9koa).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du, Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko abenduaren 30ean amaitu zen.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen abenduaren 10eko 1719/2021 Ebazpenaren bidez, zuzendu egiten da Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Buruaren lanpostua betetzeko otsailaren 15eko 184/2021 Ebazpenean lehiaketara deitutako lanpostuaren izena.

Zuzenketa hori gauzatzeko, Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burutzaren lanpostua betetzeko arlo klinikoa zehaztu da, Erradiodiagnostikoko espezialitatearen barruan, eta berori betetzeko deialdia egiten da.

Horiek horrela, deitutako lanpostuaren izena aldatzea ebatzi da, eta haxe esan behar du: Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua –burua eta lepoa, muskuloeskeletikoa eta kardiotorazikoa arlo klinikokoa; arreta espezializatuarekin loturaduna–. Eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea ebatzi da, otsailaren 15eko 184/2021 Ebazpenean aurreikusitako baldintzetan, 15 egun balioduneko epean; ebazpen hau dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita, eta aurkeztutat joko dira otsailaren 15eko 184/2021 Ebazpenean xedatutako epean bidali ziren eskabideak eta dokumentazioa.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen otsailaren 7ko 135/2022 Ebazpenaren bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen da, bai eta Balorazio Batzordea izendatu ere.



### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezartzen denez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena eman eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko aginduko du.

Halaber, Balorazio Batzordearen izendapena argitaratuko da.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Buruaren –burua eta lepoa, muskuloeskeletikoa eta kardiotorazikoa arlo klinikoko; Barrualde-Galdakaoko ESiko arreta espezializatuarekin loturaduna– lanpostu bat betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzako web orrian argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiokere Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Galdakao, 2022ko otsailaren 23a.



Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari-gerentea  
**Jon Guajardo Remacha**



**I. ERANSKINA**

**ERRADIODIAGNOSTIKOKO ATAL SANITARIOKO BURUA –BURUA ETA LEPOA,  
MUSKULOESKELETIKOA ETA KARDIOTORAZIKOA ARLO KLINIKOKOA;  
BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIKO ARRETA ESPEZIALIZATUAREKIN  
LOTURADUNA– LANPOSTUA**

**ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin betiko zerrenda:

- M<sup>a</sup> Jose EREÑO EALO

Baztertuak:

- Inor ere ez



**II. ERANSKINA**

**ERRADIODIAGNOSTIKOKO ATAL SANITARIOKO BURUA –BURUA ETA LEPOA,  
MUSKULOESKELETIKOA ETA KARDIOTORAZIKOA ARLO KLINIKOKOA;  
BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIKO ARRETA ESPEZIALIZATUAREKIN  
LOTURADUNA– LANPOSTUA**

**BALORAZIO BATZORDEKO KIDEAK**

Presidentea

Titularra: David Cantero Gonzalez jauna

Ordezkoa: Amaia Etxebarria Altuna andrea

Lehenengo bokala

Titularra: Ana María Iruarrizaga Diez andrea

Ordezkoa: Lorenzo Rodriguez Gonzalez jauna

Bigarren bokala

Titularra: Arsenio Martinez Alvarez jauna

Ordezkoa: J.L. del Cura Rodriguez jauna

Hirugarren bokala

Titularra: Olivia Rodriguez San Vicente andrea

Ordezkoa: Iñigo Lecumberri Cortes jauna

Laugarren bokala (IVAPek proposatua)

Titularra: Alexander Jon Aguinaga Alesanco jauna

Ordezkoa: Beatriz Mateos Goñi andrea

Idazkaria:

Titularra: Miren Amaya de Allende Achalandabaso andrea

Ordezkoa: Maite Yeregui Huarte andrea